

Euskal Ikasketetako Gradua

Gradu Amaierako Lana

Larramendiren *Artea*

Lehen Euskara Modernoko idazleen hautuetan

Aintzane Garmendia Urquizu

Tutorea: Blanca Urgell Lázaro

2015-2016 Ikasturtea

Letren Fakultatea - Euskal Filologia jakintza-arloa

Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena

Lan honen helburu nagusia, Larramendiren *Arteak* euskal literaturan izandako eragina neurtzen hastea da. Orain arte Lehen Euskara Modernoko idazlanak aztertzerakoan lexikoari bakarrik eskaini izan zaio arreta, salbuespen bakan batzuekin (besteak beste, Altzibar 1992 eta Urgell 2013), eta esan liteke badela garaia alderdi ilunago honi ere ekiteko. Horretarako, Larramendiren bultzadaren eraginpean idatzi zuten lehen idazleetako bat hautatu dut, Mendiburu, eta honen obrarik garrantzitsuen bide dena, *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (1747).

Zehazki obra hau hautatu dut Mendibururen obra ospetsuena izateaz gain –Orixek (Iztueta 1991) “Mendibururen libururik bikainena idaztankeraz eta euskalkiaz” zeritzon–, Larramendiren gutuna hitzaurrean agertzen dela ahaztu gabe, egileak berak zaindutako bi argitalpen ezberdinek (1747, 1751) azterketa honi ekarpen aberatsa egin diezaioketelako. Izan ere, zabaldua dago bigarren edizioa “nafarragoa” delako ustea. Honela bada, bi argitalpenok esku artean hartuta aukera dugu bi edizioen arteko ezberdintasunak aztertzeaz gainera, Larramendiren gramatikarekiko erlazioak aldaketa horietan zerikusirik izan zuen ala ez egiaztatzekoa.

Gramatikak, oro har, eskaintzen dituen gai ugarien artean aditz jokatuak hautatu ditut, zehazki aditz laguntzaileak (*izan*, **edin*, **edun*, **nin*, **eradun*, **ezan* eta *egin*) eta gehien erabili ohi ditugun aditz trinkoak (*eduki*, *egin*, *egon*, *ekarri*, *eraman* eta *joan*). Honekin batera, pluralgileak ere beste atal batean aztertzea erabaki dut, azterketan zehar aurkitutako berezitasunengatik.

Gauzak horrela, Larramendiren gramatikako paradigmak eta Mendiburuk erabiltzen dituenak erkatzeak zailtasun nabarmenak ditu; adibidez, egiturari dagozkionak, gramatika baten eta erlijio liburu baten arteko ezberdintasunak begi bistakoak direnez gero. Espero dut aurkeztutako galderen artean, zenbait behintzat ondo ezarri izana.

Aurkibidea

0. Sarrera	5
1. Mendiburu: bi argitalpenen arteko zenbait ezberdintasun	
1.1. Zera > zara	9
1.2. Det > dut	10
1.3. -tza- > -zka-	11
1.4. Itzatzu > zazkitzu	11
1.5. Ondorioa	12
2. Aditz laguntzaileak	
2.1. IZAN	
2.1.1. NOR	12
2.1.2. NOR-NORI	14
2.2. *EDIN	
2.2.1. NOR	15
2.2.2. NOR-NORI	17
2.3. *EDUN	
2.3.1. NOR-NORK	18
2.3.2. NORK-NOR	20
2.4. NOR-NORI-NORK	
2.4.1. *NIN	22
2.4.2. *ERADUN	23
2.5. *EZAN	
2.5.1. NOR-NORK	25
2.5.2. NORK-NOR	27
2.5.3. NOR-NORI-NORK	28
2.6. EGIN	
2.6.1. NOR-NORI-NORK	29
3. Aditz trinkoak	
3.1. EDUKI	30
3.2. EGIN	32
3.3. EGON	33
3.4. EKARRI (NOR-NORK)	34

3.5. ERAMAN	35
3.6. JOAN	36
4. Pluralgileak	
4.1. NOR pluralgileak	
4.1.1. <i>-zka-</i>	37
4.1.2. <i>-tzi-</i>	38
4.1.3. <i>-tza-</i>	39
4.1.4. <i>-it-</i>	40
4.2. NORR pluralgileak	
4.2.1. <i>-te (3.p.pl.)</i>	40
4.2.2. <i>-te (2.p.pl.)</i>	41
5. Ondorio orokorrak	42
Erreferentzia Bibliografikoak	44

0. Sarrera

Manuel Larramendi apologista, gramatikalari, hiztegi-gile edota euskalari moduan aurkeztea, andoaindarraren alderdi zehatz batzuen zipriztinak aipatzea besterik ez litzateke. Hark egindako lana eta lortutako emaitzak, argitalpen eta zuzenketa batzuetatik haratago daude. XVIII. mendearen lehen erdialdean, andoaindarrak euskarari ordura arte izan gabeko hainbat tresna eskaini zizkion. Euskal kulturari une hartan behar zuen bultzada eman zion, eta lur euskaldunetatik kanpo ere zabaldu zen bere oihartzuna.

Ezaguna da Larramendik, oro har, euskal kulturari eta, batez ere, euskal literaturari egindako ekarpen garrantzitsua. XVIII. mendearen bigarren erdian garatu zen literatur gipuzkeraren eragile nagusia izan zen, eta haren babesean iritsi ziren, adibidez, Kardaberatz (1703-1770) eta Mendibururen (1708-1782) argitalpen esanguratsuak.

Autore andoaindarrak euskararen inguruan idatzitako hiru obra nagusiak ondokoak dira: lehenik, lan apologetikoa, *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España* (1728); bigarrenik, euskararen gramatika, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada* (1729); eta hirugarrenik, hiztegi hirukoitza, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* (1745). Harez gain, bada euskal ohituren eta euskalkien inguruan diharduen *Corografía o descripción general de la muy noble y leal Provincia de Guipúzcoa* (1754).

Larramendiren egitasmoa argia bezain anbiziotsua zen, 1745. urtean azaldu zuen moduan: “hizkuntza hain harmoniatsu eta ederra izanik, eta aukera dugularik, aberastu nahi dut, ez hitz arrotzez, bere hitzez baizik, eta egin beharko dudan lanaren handiak ez nau atzeratuko” (Urgell 2013: 18).

Larramendiren gramatika

Gramatikari ezarritako izenburuak berak adierazten du, ordura arte euskararen inguruan zabaldutako uste okerrak deuseztatu eta euskararen gramatika landua errebindikatzeko Larramendik zuen asmo sendoa. Mitxelenak (1959: 11) adierazi moduan, euskararen egituraren alderdirik garrantzitsuenak azaltzen dituen azalpen argia da.

Lan honen atzean joera nagusi bat nabarmendu izan da, gramatikak eredu grekolatindarrari jarraitzeko duen modu itsua, Gómezek (1991) bere artikuluan zehar azpimarratu bezala. Atzeman daitezke bertan eredu berau beste hizkuntza batean erabiltzearen ondorioz sortutako zailtasunak gainditzeko egileak egindako ahaleginak. Hainbat gorabehera tarteko, *El Imposible Vencido* bere garaiko euskararen deskribapen on gisa definitzen du Gómezek (1991: 794), eta bere egiturak “lorpen zoragarri eta intuizio zorrotz batzuk” ere badituela gaineratzen du.

Edukiari dagokionez, morfologiaren esparruak du bertan garrantzia handiena, eta paradigma bilduma moduan aurkeztu daiteke (Mitxelena 1983: 21). Bere *Artean*, gipuzkera erabiltzen du euskara-modu orokor gisa, bere euskalkia izateaz gain, besteen artean Gipuzkoakoa iruditzen baitzaio argiena eta entzuteko errazena (1754: 299-300). Donostiatik Tolosara bitarteko eremuan *det*, *dezu*, *du* aldaerak erabiltzen direla baieztatzen du, eta bere *Arteko* paradigma nagusian forma hauexek (1729: 66) agertzen direnez, pentsatzekoa da eremu horretako euskararen oinarritu dela paradigma nagusiak osatzeko.

Beste bi euskalkitako formak ere adierazten ditu: “Dialecto I” izenekoan *dot*, *dozu* eta *dou* adizkiak aurkezten ditu, eta “Dialecto II” deiturikoan *dut*, *duzu* eta *du*. Emandako bi euskalkietan lehena bizkaierari dagokiola ikus daiteke, eta bigarrena, aldiz, ekialderagokoa da. Larramendik (1754: 300) Irundik hasi eta Errenteriaraino *dut*, *duzu* lapurterazko aldaerak (3. euskalkiko forma berak) erabiltzen direla azaltzen du. Horregatik, azken euskalkiak Irundik hasitako ekialdeko euskara adierazten duela pentsa dezakegu. Baliteke zutabe horretako adizkiak, poesiari eskainitako atalean aipatutako Etxeberri Ziburukoa edota Aranburu (1729: 374, 379) idazle lapurtarren lanetik bildu izana, zeren eta garai hartan oraindik agian ez baitzituen ezagutzen gero hiztegian (1745: xxxiv-xxxvi) eta *Corografía*n (1754: 295-302) aipatuko zituen gainerako testuak (cf. Urgell 2005).

Beraz, oinarritzko paradigmaren Donostiatik Tolosara bitarterako garaiko euskara adierazten bide du, lehenengo euskalkiak bizkaierako formak ditu, eta hirugarren multzoak Irun ingurutik hasitako nafar-lapurterra aurkezten du. Gauzak horrela, Mendiburuk erabilitako adizkiak paradigma nagusiaren eta “Dialecto II” izenekoaren artekoak izatea espero da.

Larramendiren eragina

Mitxelena (1983: 20) adierazi legez, andoaindarrak argi zuen euskarak burumakur jarrai ez zezan, ezinbestekoa zela batez ere gipuzkeraz oraindik garatu gabeko euskal prosa garbiagoa, jatorragoa zein apainagoa erabiltzen hastea.

Idazle euskaldunei beharrezkoa zuten materiala eskaini eta euskal autoreak euskaraz modu zainduan idaztera bultzatu zituen. Orduan, Altzibarrek (1992: 326) adierazi moduan, XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, euskara idatziaren arlo guztietara hedatu zen Larramendiren eraginpean garatutako mugimendua.

Ezaguna da Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzak* (1745) izandako eragina. Urgellek (2013: 16-17) azaldu bezala, hiztegi hark, besteak beste, hitz berri ugari, hainbat mailegu, euskalki guztietako formak eta antzinako euskaratik berreskuratutako beste hainbat aldaera euskal lurralde osoan zehar zabaldu zituen, euskaldunen artean berebiziko mugimendua eraginez. Altzibarren (1992: 338) arabera, Larramendik sortutako hitz berriak garaiko zein ondoko idazle orok erabili zituen, eta, batik bat, euskara maila apalenetik jasoagoko idazlanetan.

Lanaren helburua

Larramendiren gramatikak Lehen Euskara Modernoko idazleen aditz paradigmatan izandako eragina aztertu nahi da. Zehazki Mendibururekiko dituen antzekotasun zein ezberdintasunak azalerratu nahi dira, bidenabar honen hizkuntza, oso aztertua ez dagoena, ezagutzeko urrats batzuk ere eginik. Horretarako, Larramendiren *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada* (1729) eta Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (1747) obrak esku artean hartu, eta lehenak Mendibururen aditz sisteman zenbaterainoko eragina izan zuen, eraginik izan bazuen, argitzen saiatuko naiz.

Hortaz, Larramendiren gramatika eragina bi alderdi ezberdinetan neurtuko da: batetik, Mendibururen *JBDev* (1747, 1751) lanaren bi argitalpenak erkatuta –ezaguna baita Mendibururen euskara Kardaberatzena baino “nafartuago” aurkitzen deneko ideia (Sarasola 1971: 33)–; eta bestetik, Larramendiren *Artearen* eta Mendibururen obraren

lehen edizioan (1747) ageri diren ezaugarri formalak¹ konparatuta, beharbada horretan eragina bigarreanean baino nabariagoa izan daitekeelakoan.

Azterketari ekin aurretik, garrantzitsua da Mendibururen jaioterriaren inguruan pare bat datu azaltzea. Oiartzun, Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatuta dago, eta espero liteke bere euskara idatzian gipuzkeraren ezaugarriez gain, nafar-lapurarrarenak ere izatea.² Lehenengo, Bonapartek 1869. urtean Oiartzungo euskara “iparraldeko goi-nafarrera” izeneko multzoan kokatu zuen, Gipuzkoako Irun zein beste zenbait herrirekin batera (Yrizar 1981a: 101), eta Zuazok (2008) bere euskalkien mapan, erdialdeko eta nafarreraren arteko hizkera moduan adierazi zuen. Gamindek (1985: 5), berriz, Oiartzungo euskara ipar goi-nafarrerako multzoan kokatzen du Irun zein Hondarribiarekin batera. Hortaz, Oiartzungo euskara “tarteko hizkera” moduan uler liteke (Zuazo 2008: 25), eta pentsatzekoa da, Mendiburuk bere herriko euskarari heldu baldin bazion, testuan zehar euskalki ezberdinetako forma ugari era nahasian agertzea.

Lan honen egiturari dagokionez, lehenik eta behin, Mendibururen *JBDev*-ren bi edizioen arteko konparaketa egingo da, eta batetik bestera emandako aldaketa nagusiak azalduko dira. Honen ostean, aditz laguntzaileen azterketa (*izan*, **edin*, **edun*, **nin*, **eradun*, **ezan*, *egin*) egingo da bi testuetan, eta jarraian, aditz trinkoei (*eduki*, *egin*, *egon*, *ekarri*, *eraman* eta *joan*) dagokiena. Ondoren, NOR eta NORK pluralgileen azterketa egingo da. Amaitzeko, ondorio nagusiak adieraziko dira.

Lanaren zailtasunak

Lan honetan zehar, zailtasun ugari izan ditut, eta horien artean da azterketa filologikoak egiteko dudan eskarmentu falta. Alabaina, zailtasunik handiena, 1750. urtearen inguruko euskalkien mapa argirik ezin bildu izanak eragin dit. Han eta hemengo informazio iturriak erabili beharra izan dut, eta informazio iturri sendo baten gabezia sentitu dut. Erabilitako informazio iturri nagusiak, Bonapartek 1869. urtean euskalkien inguruan adierazitakoa, Larramendi berak *Corografía*-n (1754) emandako azalpenak, Yrizarren datuak (1981) eta Zuazok (2008) bildutako ezaugarriak izan dira.

¹ Bai Larramendiren (1729) eta bai Mendibururen (1747, 1751) obretan aztertutako adizki oro, jatorrizko idatzietan agertu bezalako ezaugarri grafikoekin adieraziko da lan honetan zehar, grafia eguneratu gabe.

² Lan honetan Zuazoren (2008) terminologia baliatuko dut euskalkien eremuak izendatzeko.

Era berean, ez dut argi izan nola neurtu Larramendiren eta Mendibururen obren arteko berdintasun zein ezberdintasunak. Izan ere, bi testu moldeak oso ezberdinak dira (bata gramatika eta bestea erlijio liburua) eta egileen helburuak ere guztiz bestelakoak. Aukera bakarra, honako iturriak erabiltzea izan da: Gaminde 1985, Yrizar 1981 eta *Euskal Klasikoen Corpusa*, EKC.

Egituraketa dela eta, komeni da esatea Larramendiren *Arteak* ez duela gaur egungo gramatika batek duen antolaketa bera, eta ondorioz, itzulipurdi ugari egin behar izan ditut gramatikan zehar, beharrezko adizkiak aurkitu ahal izateko. Beste zenbait kasutan, ordea, ez dut aurkitzerik izan eta EKC-n jasotako datuekin konformatu behar izan dut.

1. Mendiburu: bi argitalpenen arteko zenbait ezberdintasun

Mendibururen bi edizioak (1747, 1751) esku artean hartu, eta argitalpen batetik bestera oiartzuarrak berak adizkiei egindako lau aldaketa azalduko ditut. Ikerketatxo hau da lanaren oinarria, Larramendik oiartzuarrarengan izandako balizko eragina frogatzekotan aztertu beharreko lehen alderdia.

1.1. Zera > zara

Izan aditz laguntzailea orainaldian dagoenean, 2. pertsonako adizkien kasuan (singularrean zein pluralean) Mendiburuk *e* bokala darabil maizago 1747. urteko edizioan, baina forma horietako zenbait, gero *a* bokalarekin agertzen dira bigarren argitalpenean. Esaterako, *necatcen cera* (1747: 129) - *nekatzen zara* (1751: 24) edota “ba daquit indar guchicoac *ceratela*” (1747: 228) - “badakit indar gutikoak *zaratela*” (1751: 42) moduko aldaketak dira argitalpen batetik bestera adizkiek jasandakoak.

Zehazki, lehenengo edizioan *e* duten adizkiak 98 dira eta *a* bokala dutenak 28. Bigarren edizioan, berriz, *e* dutenak 51 dira eta *a* bokala dutenak 90. Beraz, pentsa liteke oiartzuarrak nafar-lapurteraranzko bere joera indartu nahi izan zuela. Izan ere, Erdialdeko euskararen berrikuntza dira *e* bokala daramaten *izan* aditzaren orainaldiko

adizkiak (adib., *zera* eta *gera*), eta *a* bokala dutenak (adib., *zara* eta *gara*), aldiz, orokorrak dira (Zuazo 2008: 144).

1.2. Det > dut

**Edun* laguntzaile iragankorraren adizkietan, *e* zein *u* bokalak baliatzen ditu oiartzuarrak *JBDev*-aren lehen edizioan, baina bietan ugarienak *e* bokaldun formak dira 1. eta 2. pertsonan (*e*: 376 / *u*: 144). Bigarrenengan, gehien *e* monoptongazioa duten formak agertzen badira ere, haien erabilera lehenengoan baino murriztagoa da, *u* bokaldun formen mesedetan (361 / 151). Aldaketa hau 1. pertsonan (singularrean eta pluralean) zein 2.p. singularrean atzeman daiteke testuan zehar. Halere ez dago batetik besterako aldaketa izugarririk: *det* 4 agerralditik 3ra pasatzen da eta *degu* 47 agerralditik 45era:

1. taula

	<i>det / dut</i>	<i>degu / dugu</i>	<i>dezu / duzu</i>	<i>dezue – dezute</i>
Mendiburu (1747)	4 /53	47 /55	319 /3	5 – 1
Mendiburu (1751)	3 /52	45 /60	304 /3	7 – 2

Esate baterako, ondoko aldaketak atzeman daitezke edizio batetik bestera: *estimaczen degu* (1747: 39) - *estimatzen dugu* (1751: 8) eta *usteco dezu* (1747: 330) - *usteko duzu* (1751: 59).

Aldaketa honen atzean, badirudi lehenengo aldaketaren (*zera > zara*) arrazoi bera dagoela. Hau da, *e* monoptongazioa duten adizkiek (*det*, *degu*) gipuzkerarekin zerikusi zuzena izanik, bigarren argitalpenean aldaera horiek gutxitzen eta *u* daramaten formak (*dut*, *dugu*) hobesten saiatu da oiartzuarra, bere euskara nafar-lapurteratik gertuago kokatzeko, nonbait. Dena dela, aipagarria da lehenengo edizioan dagoen *dut / dezu* txandakatze nabarmena (*degu / dugu*, aldiz, antzera dabilta), bigarren edizioan nekez ematen dena.

1.3. -tza- > -zka-

Sarritan darabil oiartzuarrak *-tza-* hizki pluralgilea bere obraren lehenengo edizioan, Larramendik *-z(ki)-* edota *-zka-* hizkiak ere maiz tartekatzen dituen bitartean. Laugarren atalean azalduko dudan moduan, NOR saileko zein NOR-NORI-NORK saileko adizkiak osatzeko erabiltzen dute *-tza-* bi autoreek. Bietan Mendiburuk baliatzen du gehiena, eta batez ere **nin* aditz laguntzailearen NOR-NORI-NORK saileko adizkietan.

Bigarren argitalpenean, ordea, aurrez *-tza-* hizki pluralgilea erabilitako aditz formetan, oiartzuarrak *-zka-* hizkia tartekatzen du:

2. taula

Mendiburu (1747)	<i>aguertcen</i> <i>zaitza</i> (66.or.)	<i>asi</i> <i>citzaitzan-etic</i> (25.or.)	<i>ematen</i> <i>dioztat</i> (177.or.)	<i>ematen</i> <i>dioztate</i> (22.or.)	<i>utci ciotzan</i> (102.or.)
Mendiburu (1751)	<i>agertzen</i> <i>zaizka</i> (13.or.)	<i>asi</i> <i>zitzazkanetik</i> (5.or.)	<i>ematen</i> <i>diozkat</i> (32.or.)	<i>ematen</i> <i>diozkate</i> (5.or.)	<i>utzi ziozkan</i> (19.or.)

Antzerako kasua da *-tzi-* eta *-z(ki)-* pluraltasun markena ere. Izan ere, lehenengo edizioan *-tzi-* pluralgileak zuen nagusitasuna Mendibururen adizkietan, eta bigarrean, berriz, *-z(ki)-* agertzen da haren lekuan. Esaterako, lehenengo argitalpenean *daramatci* (1747: 248) forma agertzen den kasuetan, bigarrengoan *daramazki* (1751: 45) dago, salbuespenik gabe.

Yrizarrek (1981b) dioenez, adibidez, *di(o)zka* eta *zaizka* adizkiak erabiltzen ziren XX. mendearan amaieran Oiartzunen. Beraz, bigarren argitalpeneko aldaketa honek ere lotura zuzena izan dezake Mendiburuk obra nafar-lapurteratik gertuagoko euskarari eman nahi izatearekin. Era berean, baliteke Larramendiri ere jarraitu izana, hark bildutako forma berak (ikus 4. eta 9. taulak) baliatzen dituen gero.

1.4. Itzatzu > zazkitzu

Aginterazko hainbat adizki osatzeko, oiartzuarrak **ezan* aditz laguntzailea baliatzen du bere *JBDev*-aren lehenengo edizioan, eta *gorde itzatzu* (1747: 81) edota *ar-itzatzu* (1747: 217) bezalakoak osatzen ditu *-it-* pluralgile zaharrarekin. Bigarren argitalpenean, ordea, 2.p. singularreko aginterazko formak osatzeko *-zki-* pluralgile berria darabil. Hortaz, *gorde zazkitzu* (1751: 15) edota *ar zazkitzu* (1751: 39) bezalako

adizkiak adierazten ditu, lehenengo edizioiko *gorde itzatzu* zein *ar-itzatzu* adizkien baliokide gisa.

EKC-ren arabera, *zazkitzu* Mendibururen ondoko gipuzkerazko idazleek bakarrik (Lardizabal, Uriarte, Serafin Baroja) darabilte. Larramendik, aldiz, bere gramatikan *itzatzu* (1729: 87) forma bakarrik ematen du. Bestalde, Yrizarrek (1981a: 88) Oiartzunen *zazkitzu* / *zizkitzu* formak erabiltzen direla azaltzen du eta lapurteraz *zai(zki)tzu* bakarrik erabiltzen dela adierazten du. Ildo beretik, Gamindek (1985: 140) *zazkitzu* forma Azkarate nahiz Beran erabiltzen dela azaltzen du. Beraz, kasu honetan ere, oiartzuarrak aldaketa hau testua nafar-lapurterara gerturatzeko egin zuela pentsa liteke.

1.5. Ondorioa

Bi edizioen arteko konparaketak kasu guztietan erakutsi digu, adizkietan behintzat, Mendiburuk egin zituen aldaketak betiere testua nafar-lapurtarrago egiteko joerarekin daudela lotuta.

2. Aditz laguntzaileak

Mendiburuk erabilitako aditz sisteman Larramendiren gramatikak eraginik izan zuen ala ez ikusi ahal izateko, bi egileen obretan *izan*, **edin*, **edun*, **eradun*, **ezan* eta *egin* aditz laguntzaileen paradigmatik gertutik aztertuko ditut.

2.1. IZAN

2.1.1. NOR

3. taula

	Larramendi (1729)	Larramendi (1729) “Dialecto II”	Mendiburu (1747)
	<i>nai</i> z (158) ³	<i>nai</i> z / <i>na</i> z (167)	<i>nai</i> z (3) / <i>na</i> z (32)

³ Larramendik (1729) emandako aldaerekin batera, hauek agertzen diren orrialdea adierazi dut. Paradigmatiko forma guztiak orrialde berean agertuz gero, lehendabizikoan bakarrik adieraziko dut. Mendibururen (1747) obrako adibideetan, orrialdeak adierazi ordez, forma bakoitzaren agerraldi kopurua zehaztu dut parentesi artean (aipagarriak diren kasuetan soilik).

Orainaldia	<i>guera</i> <i>cera / cerade</i> <i>cerate</i> <i>dira / dirade</i>	<i>gare</i> <i>zare</i> <i>zare</i> <i>dire</i>	<i>gara (38) / guera (1)</i> <i>zara (28) / cera (98)</i> <i>cerate</i> <i>dira (156) / dirade (4)</i>
Lehenaldia	<i>ninzan</i> <i>zan</i> <i>guiñan / guiñaden</i> <i>ciñan / ciñaden</i> <i>ciran / ciraden</i>	<i>nintzen</i> <i>zen</i> <i>guiñen</i> <i>ciñen</i> <i>ciren</i>	<i>ninzan</i> <i>cen</i> <i>guiñan</i> <i>ciñan</i> <i>ciran</i>

Hirugarren taula honi erreparatuz gero, honako datuak bildu daitezke: batetik, 10 formatatik 7 bat datoz modu argian Larramendiren lehenengo zutabeko aldaerekin (Donostia - Tolosa); bestetik, bi formak (*nai*z / *na*z, *ce*n) parekotasun gehiago dituzte bigarren zutabeko aldaerekin; eta azkenik, bada bi zutabeekiko lotura argirik erakusten ez duen forma (*gara* / *guera*) ere. Lehenaldiko adizkietan, berriz, lehenengo zutabeko adizki berak (*nin*zan, *gui*ñan, *ci*ñan, *ci*ran) darabiltza oiartzuarrak, *ce*n adizkiaren salbuespenarekin.

Dena dela, orainaldian Mendibururen paradigma gorago ikusi dugun **edun*-ena bezain nahasia da, bilakabide ezberdinak izan dituzten formez osatua (cf. batik bat *gara* vs. *zera*). Orokorrean, bada, ez dator bat Larramendiren euskalki batekin ere, eta aldizkatzen diren bikoteetan (*nai*z / *na*z, *gara* / *guera*, etab.) gehien erabiltzen dituen formak bakarrik hartuta, hauxe da bere paradigma: *na*z, *gara*, *cera*, *cerate*, *dira*.

Hori horrela delarik, ez da erraza Mendiburuk erabilitako paradigma nongoa zen zehaztea, ez eta bere osotasunean hartuz gero, nonbait erabiltzen ote zen argitzea ere. Baina datu modernoagoei arreta eskainiz, egilearen hizkerarekin lotuta dagoela pentsa liteke.

Izan ere, Yrizarrek (1981a: 86-88) bildutako datuen arabera, Hernaniko zein Tolosako barietateetan⁴ *zea* forma erabiltzen zen XX. mendearen amaieran, eta Oiartzunen *zaa*. Modu berean, Gaminderen (1985) azterketan, *zera* forma Azkarate zein

⁴ Yrizarrek (1981) "Guipuzcoano Septentrional" multzoaren baitan aurkezten ditu Hernaniko barietatea (Hernani, Donostia, Usurbil, Orio, etab.) zein Tolosakoa (Tolosa, Andoain, Berastegi, etab.) .

Goizuetan erabiltzen dutela adierazten da, eta *zara* aztertutako gainerako herri nafarretan (Etxalar, Arantza, Ituren, etab.).

Honi dagokionez, dena dela, gogoratu behar dugu edizio batetik bestera egindako *zera* > *zara* aldaketa, paradigma gehiago erregulartuz eta, bidenabar, nafarrago bihurtuz. Hori horrela izanik, paradigma honek ondokoa pentsarazi dit: ez dela Larramendiren gramatikatik hartua, baizik eta bere kabuz, agian bere herriko euskaratik edo aterea.

2.1.2. NOR-NORI

4. taula

		Larramendi (1729)	Larramendi (1729) “Dialecto II”	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Osagarria sg.	<i>zait</i> / <i>zat</i> (171) <i>zaio</i> (182) <i>zaicu</i> / <i>zagu</i> (186) <i>zatzu</i> (178) <i>zaitzute</i> / <i>zatzute</i> (189) -	- <i>zaica</i> / <i>ceica</i> (184) <i>zaicu</i> (188) <i>zaitzu</i> (180) <i>zaitzute</i> (191) -	<i>zait</i> <i>zaio</i> <i>zaicu</i> <i>zaitzu</i> - <i>zaie</i>
	Osagarria pl.	<i>zaizquit</i> (171) <i>zaizca</i> (182) <i>zaizquitzu</i> (178) <i>zaizcate</i> (192)	- <i>zaitza</i> (184) <i>zaiztzu</i> / <i>zaizquitzu</i> (180) <i>zaitzate</i> (194)	<i>zaizquit</i> <i>zaitza</i> (29) / <i>zaizca</i> (5) <i>zaizquitzu</i> <i>zaitzte</i>
Lehenaldia		<i>citzaion</i> (182) <i>citzaizcan</i> -	<i>zaican</i> / <i>ceican</i> (184) <i>ceitzan</i> (184) -	<i>citzaion</i> <i>citzaizcan</i> <i>citzaien</i>

Goiko taulan ikus daitekeen moduan, Mendibururen aditz paradigma ez dator bat ehuneko ehunean Larramendik eskainitako bi ereduak batekin ere. Hala ere, paradigmak lotura zuzenagoa du Larramendiren lehenengo zutabearekin (Donostia-

Tolosa). Hain zuzen, bat datoz orainaldian osagarria singularrean duten 4etatik 3 formatan, osagarria pluralean duten 3tatik 2 formatan (*zaizca* gutxitan darabil) eta lehenaldiko 2tatik 1ean. Bigarren zutabearekin, aldiz, bi kasutan datoz bat: *zaitzu* eta *zaitza* formetan. Batetik, *zaitzu* formaren erabilera erregularitasunaren ondorio gisa uler daiteke, modu horretan singularreko aldaera orok baitu *zai-* hasiera. Bestetik, *zaitza* nahiz *zaizca* adizkien erabilera oiartzuarraren “tarteko hizkeraren” erakusle bide dira.

EKC-k adierazi legez, XVIII. mende osoan *zaizca* adizkia Haranederren (1740) lapurterazko testuan agertzen da, eta gainerako testuak gipuzkerazkoak⁵ dira. XX. mendean, berriz, Yrizarrek (1981b: 104-106) *zaizca* adizkia Hernaniko zein Tolosako bariatateetan (Astigarragan eta Andoainen, adib.), Aranon eta Oiartzunen bertan ere (*zizkiyo* eta *zizka* formekin batera) erabiltzen zela azaltzen du.

Gauzak horrela, *zaizca*, *zaizca-*, *zaiozka* nahiz *zaizko-* “giputz-gipuzkerako” (Oregi 1972: 355) forma gisa aurkeztu izan dira. Hortaz, esan liteke hizkeraz guztiz giputzak ez diren eremuetara (Arano herri nafarra da eta Oiartzun Nafarroarekin mugan baitago) hedatu zela XX. mendearen amaierarako *zaizca* forma, behinik behin.

Era berean, Mendibururen argitalpen batetik besterako *zaitza* > *zaizca* aldaketarekin oiartzuarra gehiago hurbiltzen da Larramendiren lehen dialektora. Gainera, andoaindarrak zein Kardaberatzek *zaizca* erabiltzen zuten (EKC), beraz, kasu honetan nahiko argia da Larramendiren paradigmaren eragina.

2.2. *EDIN

2.2.1. NOR

5. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Ez ahalera	<i>nadin</i> (160) <i>dedin</i> / <i>didin</i> <i>gaitezen</i> <i>zaitezen</i> <i>zaitezten</i> <i>ditecen</i>	<i>nadin</i> <i>dedin</i> <i>gaitecen</i> <i>zaitecen</i> - <i>ditecen</i>

⁵ Aipagarria da *zaizca* forma erabilitakoen artean Mogel ere egotea, Beterriko euskaran idazten ahalegindu baitzen bere lehenengo obretan.

	Ahalera	<i>naiteque</i> (227) <i>daiteque / diteque</i> <i>gaitzque</i> <i>zaitzque</i> <i>daitezque / ditezque</i>	<i>naiteque</i> <i>diteque</i> <i>gaitzque</i> <i>zaitzque</i> <i>ditezque</i>
--	---------	---	--

Bosgarren taula honetan argi ikus daiteke Mendiburuk erabilitako adizkiak bat datozela Larramendiren gramatikan aurkeztutakoekin. Dena den, Larramendiren paradigma ez da bakuna, zenbaitetan (*dedin - didin*, *daiteque - diteque* eta *daitezque - ditezque*) aukerak eskaintzen baititu. Badirudi, beraz, Donostiatik hasi eta Tolosara bitarteko eremu zabalean bildutako aldaerak aurkezten dituela.

Aipatutako *dedin - didin* adizki bikotea dela eta, komeni da esatea *dedin* forma gipuzkerazko testuetan (adib., Larramendi, Kardaberatz, Ubillos eta Agirrerren obretan) agertzen dela maizen XVIII. mendean zehar, bizkaierazko (Mogel, Kardaberatz)⁶ zein nafarrerazko (Lizarraga) testuren batean ere agertu arren (EKC). *Didin*, berriz, Barrutia zein Mogelen mendebaldeko testuetan eta Otxoa Arinen gipuzkerazkoan agertzen da.

Aintzat *daitezke - ditezke* adizki bikotea hartuz, XVIII. mendean *daitezke* lapurterazko testuetan (adib. Haraneder, Xurio eta Larregi) agertzen dela ikus daiteke EKC-n. Alabaina, *ditezke* lapurterazko testuetan (Haraneder, Etxeberri Sarakoa, Xurio, etab.) agertzeaz gain, gipuzkerazko (Agirre, Otxoa Arin, Kardaberatz, Ubillos eta Larramendi), bizkaierazko (Mogel) zein goi-nafarrerazko testuetan (Mikelestorena) ere aurki daiteke.

Honela bada, Mendibururen paradigma bat dator Larramendik bere gramatikan adierazitakoarekin, eta aukera guztietan bat dator literatur gipuzkeraren oinarri diren Larramendirekin zein Kardaberatzekin. Hortaz, kasu honetan argia da oiartzuarraren paradigmaren eta literatur gipuzkeraren arteko lotura, Larramendiren eragina tarteko.

⁶ Gogoan izan aurreko oin-oharrean Mogelen inguruan azaldutakoa. Era berean, pentsatzekoa da Kardaberatz gipuzkoarraren testua bizkaierazkoa bada ere, testuan erabilitako euskarak bi euskalkietako ezaugarriak bildu izana.

2.2.2. NOR-NORI

6. taula

			Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Subjuntiboa	Osagarria sg.	- <i>daquion</i> (182) <i>daquigun</i> (187) <i>daquitzun</i> (179) -	<i>daquidan</i> <i>daquion</i> <i>daquigun</i> <i>daquizun</i> <i>daquien</i>
		Osagarria pl.	-	<i>daquiezten</i>
	Ahalera		- - - -	<i>daquioque</i> / <i>daquiqueo</i> <i>daquieque</i> <i>daquiquegun</i> <i>daquiquezu</i>
Lehenaldia			- <i>cequion</i> (183) <i>cequigun</i> (187) -	<i>cequidan</i> <i>cequion</i> <i>cequigun</i> <i>cequien</i>
Agintera			- <i>bitez</i> (159) <i>bequit</i> (172) <i>bequio</i> (182) <i>bequigu</i> (187) -	<i>bedi</i> <i>bitez</i> <i>bequit</i> <i>bequio</i> - <i>bequie</i>

Seigarren taulan bildutako adizkiei erreparatuta, hasteko, azpimarratzekoa da Larramendiren paradigmak dituen hutsuneen kopuru jaso, eta baita formak gramatikan zehar agertzen diren modu sakabanatua ere. Mendiburuk, ostera, paradigma osatuagoak eskaintzen ditu. Dena den, bat datoz bi paradigmak elkarrekin konpara daitezkeen 5 formetan.

Bestalde, espero izatekoa da **edin* aditz laguntzailearen NOR-NORI paradigma horretan aldaera gehiegi ez topatzea. Aitzitik, badira oiartzuarraren obran *daquiqueo*, *daquiquegun* zein *daquiquezu* bezalako adizki bereziak. Hain zuzen, bereziak dira euskara batuan erabili ohi dugun *daquioque* adizkian ez bezala, NORI saila adierazten duen *-o* bokala hitz amaieran baitute.

Zehazki, forma hauen adibideak gipuzkera zein lapurterara mugatzen dira (EKC): batetik, Urtek erabiltzen du *dakikeo* XVIII. mendearen lehen erdian, eta bigarren erdian soilik Larramendik; *dakikegu* eta *dakikezu*, ordea, XVIII. mendean

zehir Mendiburu nahiz Kardaberatzen testuetan bakarrik daude lekukotuta. Beraz, **edin* laguntzailearen NOR paradigmaren ikusi moduan, Mendiburuz gain, forma berezi hauek erabiltzen dituzte literatur gipuzkeraren zutabe diren Larramendi zein Kardaberatzek ere.

Bestalde, *dakiguke* eta *dakizuke* formek ez dute lekukotasunik gipuzkerazko testuetan (EKC), eta *dakioke* forma, aldiz, Mendiburuk berak darabil lehenengoz XVIII. mendearen bigarren erdian. Gauzak horrela, *dakikeo* bezalako formak gaur egun bereziak badirudite ere, pentsatzekoa da XVIII. mendearen bigarren erdira bitartean gipuzkeraz forma horiek soilik erabiltzen zirela.

2.3. *EDUN

2.3.1. NOR-NORK

7. taula

		Larramendi (1729)	Larramendi (1729) “Dialecto II”	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Osagarria sg.	<i>nau</i> (140)	<i>nau</i> (142)	<i>nau</i>
		<i>nazu</i>	<i>nauzu</i>	<i>nazu</i>
		<i>nazue / nazute</i>	<i>nauzute / nauzue</i>	<i>nazue</i>
		<i>naute / naue</i>	<i>naute</i>	<i>naute</i>
		<i>det</i> (66)	<i>dut</i> (69)	<i>dut</i> (54) / <i>det</i> (3)
		<i>deu</i>	<i>du</i>	<i>du</i>
		<i>degu</i>	<i>dugu</i>	<i>dugu</i> (55) / <i>degu</i> (47)
		<i>dezu</i>	<i>duzu</i>	<i>duzu</i> (3) / <i>dezu</i> (319)
		<i>dezue / dezute</i>	<i>duzue / duzute</i>	<i>dezue</i> (5) / <i>dezute</i> (1)
		<i>dute / deue</i>	<i>dute</i>	<i>dute</i>

Taula honetan, are eta nabarmenagoa da Mendibururen euskararen “tarteko” izaera. Hain zuzen, Larramendiren lehenengo zutabeko zein bigarren euskalkiko aldaerak erabiltzen ditu, bere euskararen izan zezakeen euskalki ezberdinen arteko elkarreraginaren erakusle. Dena dela, aipagarria da, gero adieraziko ditudan salbuespenak salbuespen NOR = NI paradigmaren ehuneko ehunetan erabiltzen dituela Larramendiren gramatikako I. Euskalkiaren formak.

Esaterako, oiartzuarrak XVIII. mendean zehar gipuzkerazko testuen autoreek (Irazustak, Kardaberatzek eta Larramendik) erabiltzen zuten *nazu* aldaera darabil, eta ez lapurterazko testuekin (Haraneder, Xurio, Larregi, etab.) lotura estuagoa zuen *nauzu* adizkia (EKC). Hari beretik, autore gipuzkoarrek erabilitako *dezu* forma (Otxoa Arin, Kardaberatz, Ubillos, etab.) egile lapurtar zein nafarrek (Larregi, Haraneder, Lizarraga, etab.) baliatutako *duzu* baino sarriago agertzen da testuan zehar, baina *det* baino maizago agertzen da *dut* adizkia. Yrizarrek (1981b: 38) dioenez, *dut* baita Oiartzungo euskarari dagokiona, alabaina ez dakigu Oiartzunen *dezu* erabiltzen ote duten.

Dena dela, gogoan hartu behar da Mendibururen 1747. urteko argitalpenetik 1751. urtekora bitartean egindako *det* > *dut* aldaketa (*u* bokaldun formen mesedetan). Aurrez azaldu bezala, aldaketa horrek nafar-lapurteratik gertuagoko euskara baten aldeko joera adierazten baitu.

Bada intereseko beste datu bat adizkion artean: Larramendik *-eu-* mantentzen du **edun-*en 3. pertsonako formetan. Zehazki *deu* ematen du 3. p. singularrean, eta *dute* / *deue* formak adierazten ditu 3. p. pluralean. Izan ere, Lakarrak (1985: 254) azaldu legez, gipuzkera zahar ia osoak gordetzen du *-eu-* diptongoa. Besteak beste, Azpeitiko Gutunek (1622), Otxoa Arinek (1713) eta Zegamako Dotrinak (1741). Mendiburuk, ordea, ez du *-eu-* mantentzen bere testuetan (EKC), eta *du* zein *dute* bezalako formak baliatzen ditu.

Bestalde, espero zitekeen moduan, Mendiburuk 3.p. pluralean *naute* aldaera ematen du eta ez Mendebaldean erabilitako *naue*. Kardaberatzek zein Larramendik, ordea, bi formak aipatzen dituzte beren lanetan. Haien modura, bi formak darabiltzate XVIII. mendeko beste zenbait autore lapurtarrek (adib. Haranederrek, Urtek eta Xuriok), eta nafar batek (Lizarragak) ere (EKC). Gipuzkoarren artean, berriz, XIX. mendean Agirre Asteasukoak *naue* soilik darabil.

Are gehiago, Yrizarrek (1981a: 27) Oiartzungo euskaran *naute* adizkia erabiltzen dela azaltzen du, erdialde zabal batean espero dugun *-te* pluralgilea (berrikuntza) daramana, alegia. Hori dela eta, ez du forma honek inolako aldaketarik jasan lehenengo argitalpenetik bigarrenera bitartean. *Naue* forma (1981a: 162), aldiz, Legorreta inguruko gipuzkeran (Goierriko euskaran) nahiz Oñati eremuko bizkaieran erabiltzen dela adierazten du, batez ere mendebalde zabalean.

2.3.2. NORK-NOR

8. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Lehenaldia		<i>nuen</i> (81) <i>ceuen</i> / <i>zuen</i> <i>guenduen</i> <i>cenduen</i> <i>ceuen</i> / <i>zuten</i>	<i>nuen</i> <i>zuen</i> <i>guenuen</i> (6) / <i>guenduen</i> (1) <i>cenuen</i> <i>zuten</i>
Alegiazkoa	Ez ahalera	<i>banu</i> / <i>baneu</i> (83) <i>balu</i> / <i>baleu</i> <i>baguendu</i> <i>bacendu</i> <i>balute</i> / <i>baleue</i>	<i>banu</i> <i>balu</i> <i>ba guenu</i> <i>bacenu</i> <i>balute</i> (2) / <i>balue</i> (2)
	Ahalera	<i>nuque</i> / <i>neuque</i> (80) <i>luque</i> / <i>leuque</i> <i>guenduque</i> (81) <i>cenduque</i> (80) <i>luquete</i> / <i>luquee</i>	<i>nuque</i> <i>luque</i> <i>guenuque</i> (12) / <i>guenduque</i> (1) <i>cenuque</i> <i>luquee</i>
		<i>nituque</i> (88) <i>lituque</i> <i>guinituque</i> <i>cinituque</i> <i>cinituquee</i> / <i>cinituquete</i> <i>lituquee</i> / <i>lituquete</i>	<i>nituque</i> <i>lituque</i> <i>guinituque</i> (1) <i>cenituque</i> - <i>lituzquee</i> (1)

Goiko taulan, ikus daiteke 20 formatatik 12 berdinak direla bi egileen paradigmatan. Larramendik aukeran ematen ditu bi gauza: alde batetik, forma diptongodunak zein diptongorik gabeak (*banu* / *baneu* erakoak) eta beste aldetik, *-te* / *-e* pluralak.

Diptongodun formei dagokienez, Mendiburuk testu honetan diptongorik gabekoak hautatzen ditu (*zuen, banu, nuque, etab.*). Larramendik eta Kardaberatzek, ordea, forma diptongodunak ere ematen dituzte beren testuetan. Are gehiago, XIX. mendera arte gipuzkeraz Larramendiren zein Kardaberatzen testuetan agertzen dira forma diptongodun gehien (EKC). Diptongodun formen artean, esate baterako, *zeuen* Larramendik nahiz Kardaberatzek erabili zuten; *baleu* Otxoa Arinek, Mendiburuk, Kardaberatzek zein Larramendik; eta *baleue* Larramendik bakarrik. Hau horrela izanik, kasu honetan ere bat datoz Larramendi zein Kardaberatz, biek erabiltzen baitituzte diptongodun nahiz diptongorik gabeko formak beren testuetan.

Mendibururen pluraleko adizkiei erreparatuz gero, ondoko datuak bildu daitezke: batetik, *balute / balue* aukeran daude eta bestetik, *luquee* zein *lituzquee* formekin batera ez dago bestelako aukerarik. Beraz, harrigarria da, hasiera batean behintzat, Mendiburuk *-e* duten formak erabiltzea, eta kasuren batean hauexek bakarrik.

Bestalde, ondoko kasuetan oiartzuarra nabarmen urruntzen da Larramendiren formatatik: batetik, Mendiburuk ez ditu zendu-, gendu- erako adizkiak erabiltzen (guenduen eta guendunque bitan soilik), baizik eta zenu-, genu- erakoak sistematikoki. EKC-ren arabera, gendu- erako adizkiak gipuzkerazko testuetan daude batez ere lekukotuta, eta Kardaberatz nahiz Larramendik ere erabili zituzten. Alabaina, adizki hauen kasuan badirudi ez ziela bere bi adiskideen joerari jarraitu, eta horregatik, orokorragoa den genu- baliatu zuela.

Bestetik, Mendiburuk *cenituque* hautatzen du (erregularragoa baita) eta *guinituque* onartu arren, behin bakarrik darabil. Gainera, *ginituke - zinituke* aldaerak Larramendiren, Mendibururen eta Mogelen testuetan soilik daude lekukotuta (EKC), hortaz, pentsatzekoa da andoaindarraren eraginez erabili zuela Mendiburuk *guinituque* (ezaguna da Mogelek gipuzkeraz oiartzuarraren idatzien bidez ikasi zuela). Azkenik, oiartzuarrak plural pleonastikoa duen *lituzquee* ere erabiltzen du, baina aldaera hau literaturara oiartzuarrak berak ekarri zuela uler daiteke, Mogel zein Mendibururen testuetan soilik baitago lekukotuta (EKC).

2.4. NOR-NORI-NORK

2.4.1. *NIN

Ezaguna da *dizquigu* moduko adizkiak **nin* ‘eman’ aditzaren gramatikalizaziotik sortutako formak direla dioen hipotesia.

9. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Osagarria pl.	<i>diozcat / dizquiot / diauzcat</i> (116) <i>diozca / dizquio</i> <i>diozcagu / dizquio<u>gu</u></i> <i>diozcatzu / dizquio<u>zu</u></i> <i>diozcate / dizquio<u>te</u></i> <i>diozcatet / dieztet / dizquio<u>tet</u></i> (135)	<i>diotzat</i> <i>diotza</i> <i>diotzagu</i> <i>diotzazu / diotzatu</i> <i>diotzate (3) / diezte (11)</i> <i>dieztet</i>
		<i>dizquigu</i> (123) <i>dizquitzu</i> (110)	<i>diezquigu</i> <i>diezquitzu</i>
Lehenaldia	Osagarria sg.	<i>guinion</i> (113) <i>cinion</i> <i>cinioten</i> <i>cioten</i>	<i>guenion</i> (3) / <i>gueniozan</i> (2) - - <i>cioten</i>
	Osagarria pl.	<i>ciozcan / cizquion</i> (117) <i>ciozcaten / ciezten</i> (135)	<i>ciotzan</i> <i>ciezten</i>
Alegiazkoa		<i>guinioque</i> (113) <i>cinioque</i> <i>cinioquete</i>	<i>guenioque</i> (1) / <i>gueniqueo</i> (1) <i>cenioque</i> <i>cenieque</i>
		<i>nizunque</i> (108)	<i>niquezu</i>
		<i>lizquitzuque</i> (110)	<i>liezquitzu</i>

Datuei erreparatuz gero, orainaldian NOR singularra denean izan ezik (bien arteko parekotasunagatik ez ditut taulan kokatu), gainerako adizkietan bi egileak oso ezberdin dabiltzala atzeman daiteke. Hain zuzen, NOR singularra denean bi autoreek darabiltzate *diot*, *dio*, *diozu*, *diote* eta *diozue* / *diozute* —Larramendik biak (1729: 112), eta Mendiburuk *diozute* soilik (adibide bakarra dago)—. Gauzak horrela, Mendiburuk 2. p. pluraleko *diozute* soilik erabili izana kontraesan dago aurrez *-e* pluralgilearen alde emandako azalpenekin. Dena den, orain ez diot alderdi honi helduko, laugarren atalean sakonduko baitut pluralgileen gaian.

Era berean, aurrez azaldu bezala (ikus 8. *taula*), Larramendik *gini-*, *zini-* forma asimilatuak ematen ditu. Mendiburuk, aldiz, nahiago ditu *geni-*, *zeni-* asimilaziorik gabeko formak (erregularrak). Horretaz gain, harrigarriak dira oiartzuarrak erabilitako *diezquigu*, *diezquitzu* nahiz *liezquitzu*. ‘Hark guri / zuri’ pluraleko forma hauek erregularrak dira, baina espero ez den *e* bat dute. Ondoko pasartean agertzen da, adibidez, *liezquitzu* adizkia: “Uste dezu maitatze orretan sartcearequin, sartcen cerala bicitza nequezco batean; ta neque guciac , edo quenduco, edo **arinduco liezquitzun** maitatcean ez sartcea gatic , sarturic guelditcen cera neque utsen artean” (1747: 183). EKC-ren arabera, adizki berezi hauek Mendibururen testuetan soilik daude lekukotuta, beraz, inoren eraginetik urrun, oiartzuarraren euskararen erakusle direla pentsa liteke.

Azkenik, 9.*taulako* alegiazko adizkien artean, Mendibururen *gueniqueo* ‘genioke’ eta *niquezu* ‘nizuke’ formak ditugu. Adizki bereziak dira, NORI saila adierazten duten *-o* zein *-zu* hizkiak hitz amaieran agertzen baitira, aurrez azaldutako beste zenbait adibidetan bezala (ikus 6. *taula*).

2.4.2. *ERADUN

Aztergai ditudan bi autoreen lanetan, ez dira **eradun* aditz laguntzailearen adibide asko agertzen, **nin* erdialdeko ohiko laguntzailearen aldean (ik. § 2.4.1) *fase sparita*-n dagoen arkaismo bat denez gero. Izan ere, **eradun* (-ra-) (adib. *dirauzcun*) eta **-i* erroko (*diegu*) adizki biak erabili izan dira gipuzkera zaharrean (Lakarra 1985: 256-258), baina indikatiboko NOR-NORI-NORK sailean NOR plurala dutenetan soilik ageri dira **eradun* laguntzailearen formak, bi autoreon kasuan bezala.

10. taula

	Larramendi (1729)	Larramendi (1729) “Dialecto II”	Mendiburu (1747)
Orainaldia		<i>darozquit / dauzquit</i> (97)	<i>derezquit</i>
	<i>diauzcatzu</i> (116)	<i>darozquitzut / derauzquitzut / dauzquitzut</i> (112) <i>darozquitzu / derauzquitzu / dauzquitzu</i> (112)	- <i>derezquitzu</i>

Ondoko ataletan aurkezten ditu Larramendik taulan adierazitako adizkiak: batetik, *darozquit / dauzquit* erlatibozko 1.p. pluraleko adizkiei dagokien atalaren orainaldiko paradigmak kokatzen ditu, *dizquidac* (1729: 94) orokorraren nafar-lapurterazko aldaera gisa; bestetik, *darozquitzut* zein *darozquitzu* erlatibozko 3.p. pluraleko atalean jasotzen ditu, *dizquitzut* eta *dizquitzu* (1729: 110) orokorren nafar-lapurterazko aldaera moduan; eta *diauzcatzu*, berriz, erlatibozko 3.p. pluraleko adizkiak biltzen dituen beste atal batean adierazten du, *dizquiozu* bezalako beste zenbait adibiderekina batera.

Aitzitik, argi ikus daiteke batoren eta bestearen formak ez datozela ezertan bat. Larramendik *darozki- / derauzki- / dauzki-* eta *diauzka-* aukerak eman arren, Mendiburuk *derezki-* ereduak erabiltzen baitu. EKC-ren arabera, XVIII. mendeko testuetan ez da Larramendik bere gramatikan aurkeztutako *derauzki-* formako adizkirik erabiltzen; bai, ordea, aurreko zein ondoko mendeetako lapurterazko zein behe-nafarrerazko testuetan. *Darozki-* formako adizkiak, aldiz, ondo lekukotuta daude lapurterazko testuetan: XVII. mendean, esaterako, Etxeberri Ziburukoak, Harizmendik eta Gazteluzarrek darabilte; eta XVIII. mendean, adibidez, Urtek, Etxeberri Sarakoak zein Larregik.

Bestalde, *dauzki-* formakoak ondokoetan daude lekukotuta: gipuzkerazko XIX. mendean geroztikako testuetan (Arzak, Udarregi, Xenpelar); nafarrerazko Beriain zein Lizarragaren testuetan (XVII. eta XVIII. mendekoak, hurrenez hurren); eta lapurterazko XVIII. mendeko Haranederren testuetan. Mendiburuk erabilitako *derezki-* ereduak, ordea, bere testuetan soilik daude lekukotuta (EKC). Hori dela eta, **eradun* aditz laguntzaileari dagokionean oiartzuarrak bere forma propioak baliatu zituela uler daiteke, besteren eraginik gabe.

Yrizarrek (1981a: 17-18) **eradun* aditz laguntzailearen nukleo ezberdinen zerrenda dakar bere lanean: *ARO, ERAU/ERA/ERO, ARO, IRAU, ERAI, ERO*, etab. Guzti hauen artean, *IRAU* aurkezten du gipuzkerazko moduan, eta datuotan oinarritzen da baieztapen hori indartzeko: batetik, XVIII. mendearen lehen erdian Otxoa Arinek erabili zuen, eta bestetik, Larramendik (1745: 30) Azkoitian zein Azpeitian *dirautzat* bezalako adizkiak erabiltzen zirela azaltzen du.

Taulan adierazitako adizkiek **eradun* aditzaren bilakaera denboran zehar ikusteko aukera ematen dute. Esate baterako, Larramendiren adizkiek honako aldaketa sorta gertatu dela pentsaraztera naramate: **dera(d)uzquitzu > darozquitzu > dauzquitzu*. Hain zuzen, Mendiburuk testuan erabilitako adizkiak andoaindarraren *derauzquitzu* aldaeratik daudela hurbilen ikus daiteke. Datu hauekin, oiartzuarraren eskualdean bilakaera ondokoaren antzekoa izan zitekeela ondorioztatu dut: **dera(d)uzquitzu > dereuzquitzu > derezquitzu*.

2.5. *EZAN

2.5.1. NOR-NORK

11. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Ez ahalera	<i>dezadan</i> (80) <i>dezan</i> <i>dezagun</i> <i>dezaten</i>	<i>dezadan</i> <i>dezan</i> <i>dezagun</i> <i>dezaten</i>
		<i>zaitzadan</i> (145) <i>zaitzan</i> <i>zaitzagun</i> <i>zaitzaten</i>	<i>zaitzadan</i> <i>zaitzan</i> <i>zaitzagun</i> <i>zaitzaten</i>
	Ahalera	<i>dezaquet</i> (212) <i>dezaque</i> <i>dezaquegu</i> <i>dezaquezu</i> <i>dezaquete</i>	<i>dezaquet</i> <i>dezaque</i> <i>dezaquegu</i> <i>dezaquezu</i> <i>dezaquete</i> (1) / <i>dezaquee</i> (8)

		<i>ditzaquet</i> (213) <i>ditzaque</i> <i>ditzaquegu</i> <i>ditzaquetzu</i>	<i>ditzaquet</i> <i>ditzaque</i> <i>ditzaquegu</i> <i>ditzaquezu</i>
--	--	--	---

Paradigma honetan, bi egileen arteko ezberdintasun nagusia *-te* / *-e* pluralgileen erabileran datza, *dezaquete* eta *dezaquee* adizkietan. EKC-ren arabera, *dezakee* forma honela dago lekukotuta: Leizarragaren testuan (XVI. mendea), Aranbillagaren lanean (XVII. mendea), eta XVIII. mendeko Xuriorren, Kardaberatzen eta Ubillosen testuetan, besteak beste. Dena dela, kasu honetan ere oiartzuarrak *-e* pluralgilea duen forma *-te* berrikuntza daramana baino maizago darabil, aurrez aztertutako beste hainbat kasutan (adib. *luquee*, *lituzquee*) ikusi moduan.

12. taula

	Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Agintera	<i>nazazu</i> (140) <i>nazazue</i> / <i>nazazute</i>	<i>nazazu</i> <i>nazazue</i> (1)
	<i>ezazu</i> (71)	<i>dezazu</i>
	<i>beza</i> (71) <i>bezate</i>	<i>beza</i> <i>bezate</i>
	<i>bitza</i> (87) <i>bitzate</i>	<i>bitza</i> <i>bitzate</i>

Taula honetan, espero bezala, bi egileak bat datoz ia forma guztietan (7 formatatik 6tan). Ezberdintasun hori *ezazu-dezazu* adizkiei dagokie, andoaindarrak *ezazu* forma azaltzen baitu bere gramatikan, eta oiartzuarrak, aldiz, *dezazu* baitarabil. Ez da harritzekoa autore bakoitzak erakutsitako jokaera, mendebaldean *d-* gabeko aginte forma baita hedatuena eta ekialdean, berriz, *d-* kontsonantea daramana (*Sareko Euskal Gramatika*).

Hori dela eta, oiartzuarraren jokaera haren hizkerak duen aniztasunaren erakusle izan daiteke edota literatur lapurterak harengan izandako eraginaren adierazgarri. EKC-ren arabera, *dezazu* ez da ohikoa gipuzkera idatzian XX. mendera arte (ale bana Agirre Asteasukoak eta Jose Antonio Uriarteren Bibliaren itzulpenean), baina Antonio Maria Labaien tolosarraren eta Ibarako Emeterio Arreseren lanetan duen ugaritasunak ahoz

zabaldua izan zela ere pentsarazi dezake. Era berean, interesgarria da oiartzuarrak *-te / -e* artean berriro *-e* pluralgilea hautatu izana *nazazue* forman, gorago azaldutako beste hainbat adibidetan gertatu moduan (ikus 11. taula).

2.5.2. NORK-NOR

13. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Alegiazkoa	Osagarria sg.	<i>nezaque</i> (212) <i>lezaque / cezaque</i> <i>guenezaque</i> <i>cenezaque</i> <i>lezaquete / cezaquete</i>	<i>nezaque</i> <i>lezaque</i> <i>guenezaque</i> <i>cenezaque</i> -
	Osagarria pl.	<i>nitzaque</i> (213) <i>litzaque / citzaque</i> <i>gunitzaque</i> <i>cinitzaque</i> <i>litzateque / citzateque</i>	- <i>li(t)zaque</i> <i>gunitzaque</i> <i>cenitzaque</i> -

NORK-NOR paradigma honetako adizkiei dagokienez, bi egileek adizki berak darabiltzate 7 formatatik 5etan. Aurrez azaldutako *gunituque - cinituque* (8. taula) adizkien kasuan bezala, badira goiko taulan antzeko beste bi adizki bikote: *gunitzaque - guenitzaque* eta *cinitzaque - cenitzaque*. Kasu honetan ere, Mendiburuk aukera sistematiko zabalagoaren alde egiten du eta *gueni-* nahiz *ceni-* hobesten ditu, *guini-* zein *cini-* forma asimilatuen ordez.

EKC-ren arabera, XIX. mendea baino lehenagoko *ginitzake* formaren lekukotasun bakarrak XVII. mendeko Axular zein Pouvreau egile lapurtarren testuetakoak dira. *Zinitzake* forma, berriz, XVII. mendeko Haranburu zein Axularren testuetan agertzen da, baina baita XVIII. mendeko Kardaberatzen testuetan ere.

2.5.3. NOR-NORI-NORK

14. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Ez ahalera	<i>diezadan</i> (91) <i>diozan</i> (113) <i>diezagun</i> (121) <i>diezazun</i> (108) <i>diozaten</i> (113)	<i>diezadan</i> <i>diozan</i> (1) / <i>diezagon</i> (1) <i>diezagun</i> <i>diezazun</i> <i>diezayen</i>
	Ahalera	-	<i>dezoque</i>
Agintera		<i>zadazu</i> (91)	<i>zadazu</i>
		-	<i>zagozu</i>
		- <i>zadazue</i>	<i>zaguzu</i> -
		- <i>biezat</i> (91) - <i>biezatet</i>	- <i>biezago</i> -

Taula honetan ere berdintasuna da nagusi. Bi autoreen adizkien artean ikus daitekeen ezberdintasun nagusia *diozan* eta *diezagon* adizkiei dagokiena da. Izan ere, andoaindarrak *diozan* ‘diezaion’ aurkezten du bere gramatikan, eta oiartzuarrak *diozan* zein *diezagon* formak. Bi aldaeretan lehena darabil Kardaberatzek ere (XVIII. mendeko zenbait nafar-lapurtarrekin batera); *diezagon*, berriz, Mendiburuk baino ez (EKC).

Gisa berean, Mendibururen *JBDev*-an *dezoque* ‘diezaioke’ aldaera agertzen da. EKC-ren arabera, XVIII. mendean Etxeberri Sarakoak, Lizarraga nafarrak zein Juan Antonio Mogelek ere baliatzen dute beren lanetan.

Aipatzekoa da biak bat datozela aginterazko *zadazu* ereduiko *e-* gabeko formak erabiltzean, baita *bieza* ereduoketan ere (*biezat* eta *biezatet* Lar., *biezago* Mend.). Lehenengoari dagokionez, EKC-ren arabera *zadazu* literatur gipuzkeraren ezaugarrietako bat da (Kardaberatz, Agirre Asteasuko, etab.), eta berdin aurki daiteke XVIII. mendeko nafar zenbaitetan ere (Mikelestorena, Lizarraga). Bestalde, XVIII.

mendetik aurrerako lapurterazko zein batez ere gipuzkerazko testuetan daude *bieza* formako adizkiak jasota.

2.6. EGIN

2.6.1. NOR-NORI-NORK

15. taula

		Orainaldia	Lehenaldia
Mendiburu (1747)	Subjuntiboa	<i>deguizun</i> (298.or.)	<i>ceguion</i> (31.or.)
	Agintera	<i>daguidazu</i> (376.or.)	

Larramendik bere gramatikan, aginterazko adizki irregularrak egin aditzarekin osatzen direla azaltzen du (1729: 72), eta harekin jan-eguin zein jan-eguizu bezalako formak eraiki daitezkeela. Zehazki Azpeitian kokatzen du mendebaldeko egin laguntzailearen erabilera. Urola bailarako eremu horretan, gertukoak dituen indazu, emadazu zein esadazu aldaeren orde, eman eguidazu edota esan eguidazu moduko adizkiak erabiltzen direla adierazten du (1754: 301).

Mendiburuk erabilitako hiru laguntzaileak [aditzoina + *egin*] perifrasieta agertzen dira. Perifrasia berez [partizipioa + *egin*] da, ordea, Mounoleren hipotesiaren (2007) arabera. Hortaz, beretu egin zituela pentsa liteke, baldin eta mendebaldetik ikasi bazuen, **ezan*-ekiko perifrasiari dagokion ezaugarria (aditzoina) honi ere egokitu baitzion.

Dena den, EKC-ren arabera, Larramendiren testuetan ez dago *degizu* eta *dagidazu* formen lekukotasunik, eta Kardaberatzen kasuan, hiru adizki laguntzaileetatik *zegiola* forma bakarrik topa daiteke bere testuetan. Baina Azkoitiko sermoian (Lakarra 1985: 255-256) argi ikus daiteke Larramendik maiz erabiltzen zuela *egin* aditz laguntzailea: *icusi daguigun*, *albaneguiz*, *eguin daguiquet*, *esan eguidazue*, etab. Bestalde, Azkoitiko sermoian ez da Mendiburuk erabilitako hiru laguntzaileetarik bat bera ere agertzen. Beraz, andoaindarrak adizkion erabileran oiartzuarrarengan eragina izan bazezakeen ere, pentsa liteke Mendiburuk erabilitako *egin* laguntzailearen adizkiak

bere horretan ikasi zituela. Honen alde letorke *daguidazu* aginterazko forma harrigarria: Orixe eta Erramun Maruriz beste inork erabili ez duena (EKC).

Egin laguntzailea mendebaldeko euskararen ezaugarritzat jotzen bada ere, ezaguna da (cf. Lakarra 1985: 255-256) gipuzkera zaharrean **ezan* laguntzailearen NOR-NORK adizkiak baino zabalduago zegoela *egin* indikatibotik kanpoko NOR-NORI-NORK saileko adizkiak adierazteko. Erabilera hori atzeraka joan bada ere (oiartzuarraren obran maizago agertzen da *egin* baino **ezan*), 1868. urtean Arruek oraindik maiz erabiltzen zuten *egin* laguntzailea indikatiboan ez beste modu guztietan (Urgell 2013: 41).

Era berean, azken taulak erakutsi moduan, Lehen Euskara Modernoan galtzear zegoen *a / e* bokalen arteko oposaketa (Urgell 2013: 40-41): *e* bokala hiru pertsonadun formetan eta *a* bokala bi pertsonadunetan erabiltzea. Galera *a*-ren aldekoa izan zen, eta Mendiburuk ere ia galdua zuen, bere aldaeren artean *deguizun* forman soilik gordetzen baitu oposaketa.

3. Aditz trinkoak

Aditz laguntzaileen azterketa egin ondoren, beharrezkoa iruditzen zait beste aditz garrantzitsu batzuen erabilerari ere gertutik begirada bat ematea. Hainbat dira bi autoreen obretan agertzen diren aditzak, baina azterketa honetan oinarrizkoak soilik hartuko ditut kontuan, eta hauetariko bakoitzari bi autoreek emandako trataera azaltzen saiatuko naiz. Hain zuzen, honako sei aditzak azalduko ditut ondorengo lerroetan: *eduki*, *egin*, *egon*, *ekarri*, *eraman* eta *joan*.

3.1. EDUKI

16. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Osagarria sg.	<i>daucat</i> (234-235) <i>dauca</i> <i>daucagu</i> - <i>daucazue</i>	<i>daducat</i> <i>daduca</i> <i>daducagu</i> <i>daducazu</i> (19) / <i>daucazu</i> (1) <i>daducazue</i>

		<i>daucate</i>	<i>daducate</i>
	Osagarria pl.	<i>dauzca</i> <i>dauzcatzu / dauzcatzitzu</i> <i>dauzcate / dauzcatzite</i>	<i>daduzca</i> <i>daduzcatzu</i> <i>daduzcate (3) / daducatcie (8)</i>
Lehenaldia	Osagarria sg.	<i>neucan</i> <i>ceucan</i> <i>guenducan</i> <i>cenducazun</i> <i>ceucaten</i>	- <i>ceducan</i> <i>gueneducan</i> <i>ceducan</i> <i>ceducaten</i>
	Osagarria pl.	<i>ceuzcaten / ceuzcatziten</i> (236)	<i>ceducatcien (1)</i>

Goiko taulan argia da bi egileen arteko ezberdintasuna (13 formatatik ez datoz inon bat), eta bien arteko ezberdintasun nagusia *eduki* aditzaren bokal arteko *-d-* gorde edo galdu izatean datza. Izan ere, Mendiburuk denbora zein numero guztietako adizkietan gordetzen du *-d-*, eta *daucazu*, *daucate* zein *dauzca* adibideetan soilik baliatzen ditu bokal arteko herskaririk gabeko aldaerak, forma herskaridunarekin batera. Larramendik, ostera, bi adizkietan azaltzen du *eduki* aditzaren erroko *-d-* gordeta, zehazki kontsonante ondoko *guenducan* eta *cenducazun* adibideetan.

Hain zuzen, *zenduka-* eta *genduka-* adizkiak XVIII. mendearen bigarren erdiaz geroztikako gipuzkerazko testuetan daude lekukotuta, Añibarroren bizkaierazko adibideren batez gain (EKC): oso esanguratsua da Mogel, Uriarte eta Txomin Agirrek erabiltzea gipuzkeraz aritzean, horrek esaten baitigu literatur gipuzkeraren ezaugarritzat zutela.

Daduka bezalako aldaerak, berriz, euskal literaturaren garai guztietan daude lekukotuta: XVIII. mendera bitartean autore lapurtarren testuetan agertzen dira gehien (Etxepare, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Harizmendi, etab.), baina orduetik aurrera nagusiki gipuzkerazko testuetan (Otxoa Arin, Etxeberri Sarakoa, Kardaberatz, Agirre Asteasukoa, Iztueta, etab.) daude lekukotuta. Guzti hauen artean, Mendiburuk darabiltza sarriena. Yrizarrek (1981a: 21) bere lanean adierazten duenez, ordea, XX.

mendearen amaieran ez zen Oiartzunen *dadukat* aldaera erabiltzen, *-d-* galduta duen *dakat* baizik.

Azpimarratu beharra dago Mendiburuk bakarrik erabilitako aldaerak direla, besteak beste, *gueneducan*, *daducatie* zein *ceducacien* (EKC). Aipatutako azken bi formetan, ohi bezala *-z* pluralgilea erroko *u* bokalaren ostean kokatu ordez, NORK 3. p.pluralaren (*-e*) eta *-ka-* hizkiaren artean dator, *-tzi* pluralgilea osatuz. Larramendiren formetan ere bada *-tzi* (*dauzcatzitzu*, *dauzcatzite*, *ceuzcatziten*), baina ez forma beretan. Dena dela, 4. atalean aztertuko ditut pluralgileak sakonago.

3.2. EGIN

17. taula

			Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Subjuntiboa	Orainaldia	Ez ahalera	- - - - - -	<i>daguidan</i> <i>daguion</i> <i>daguigun</i> <i>daguizun</i> <i>daguiten</i> <i>daguien</i> <i>daguioten</i>
		Ahalera	<i>daguiquet</i> (214) <i>daguique</i> <i>daguiquezu</i> <i>daguiquete</i>	<i>daguiquet</i> <i>daguique</i> <i>daguiquezu</i> <i>daguiquee</i>
	Lehenaldia	Ez ahalera	-	<i>ceguiten</i>
		Ahalera	<i>neguique</i> (214) <i>leguique</i> <i>guenequique</i> / <i>gueguique</i> <i>ceneguique</i> <i>leguiquete</i>	- <i>leguique</i> - - -

Goiko taulan, *egin* aditzaren forma trinkoak ikus daitezke subjuntiboko kasu ezberdinetan. Mendibururen erabilera Larramendiren gramatikan aurki daitekeena baino zabalagoa da. Andoaindarrak bere gramatikan, indikatiboan ez dauden ahalerako formetan eta aditz laguntzaile moduan bakarrik aurkezten baititu. Honakoak dira Mendibururen *JBDev*-an (1747) aurkitu ditudan *egin* aditz trinkoaren zenbait adibide:

“eguizu bada, *daguidan* nic ere zuc nai dezuna” (380), “hau ecin *daguique* Elizara ezpagaramatci” (78) eta “Jesus-en maitatzalle ona izateco *daguzula* gauza gogor andiren bat” (198).

EKC-ren arabera, *daguique* batez ere XVIII. mendearen bigarren erditik aurrerako gipuzkerazko testuetan dago lekukotuta: batik bat Mendiburuk darabil, baina baita Larramendik zein Ubillosek ere. Bizkaierazko testuetako lekukotasunak ere esanguratsuak dira (Azkue, Lauaxeta, etab.), baina guztiak XX. mendez geroztikakoak dira. Tartean bada *daguiqueren* beste lekukotasunik XX. mendeko Larreko eta Tapia Perurenaren nafarrerazko testuetan. Lapurterazko zenbait testutan ere lekukotuta dago, besteak beste, Gazteluzar (XVII. mendea), Haraneder zein Xurio (XVIII. mendea) autoreen testuetan.

Neguique eta *ceneguique* adizkiei dagokienez, EKC-ren arabera, XX. mendera bitartean Mendibururen testuan bakarrik daude lekukotuta. Baina Larramendiren gramatikan biak agertzen direnez gero, pentsa liteke Mendiburuk bertatik jaso zituela. Gauzak horrela, aipatu beharra dago Mendiburuk, beste behin, *cene-* sistematikoaren alde egin zuela.

3.3. EGON

18. taula

		Larramendi (1729)		Mendiburu (1747)
NOR	Orainaldia	<i>nago</i> (244-245)	-	<i>nago</i>
		<i>dago</i>	-	<i>dago</i>
		<i>gagoz</i>	<i>gaude</i>	<i>gaude</i>
		<i>zagoz</i>	<i>zaude</i>	<i>zaude</i>
		<i>dagoz</i>	<i>daude</i>	<i>daude</i>
	Lehenaldia	<i>nengoan</i>	-	<i>nengoen</i>
		<i>guegozan</i>	<i>gueunden</i>	<i>gueunden</i>
		<i>cegozten</i>	<i>ceuden</i>	<i>ceuden</i>
	NOR-	Orainaldia	<i>dagoca</i> <i>dagozca</i>	<i>dagoca</i> <i>dagozca</i>

NORI	Lehenaldia	<i>cegocan</i>	<i>cegocan</i>
------	------------	----------------	----------------

Larramendik (1729: 244) honela aurkezten ditu taulako zenbait adizki: “Indic. Pres. *nágo, ágo, zágoz, dágo, gágoz, zágoze, dágoz, estoy, estas, &c.* tiene la anomalía de *záude, záuete, dáude*”. Adizki irregular edota “anomalía” gisa azaltzen ditu *gaude, zaude* zein *daude*, eta baita lehenaldiko *gueunden* nahiz *ceuden* ere. Horregatik, Mendebaldeko euskaran erabilitako *gagoz, zagoz* edota *dagoz* azaltzen ditu forma nagusi moduan, eta ez bere eremuko euskaran erabili ohi diren *gaude, zaude* eta *daude* aldaerak, ziurrenik azken hauek ez dutelako sistema erregularra osatzen. Mendiburuk, ordea, ez die Larramendiren beharrezko erregularatasunei jarraitzen eta *nago, dago, gaude, zaude, daude* adizkiak baliatzen ditu.

Ildo beretik, bi gipuzkoarrek erabiltzen dituzte *dagoca, dagozca* zein *cegocan* adizkiak, hau da, euskara batuko *dagokio, dagozkio* zein *zegokion*. EKC-n, garai guztietan daude lekukotuta *dagoka* erako adizkiak, bizkaierazko, gipuzkerazko zein lapurterazko testuetan. Larramendiz gain, Kardaberatzek ere baliatu zituen era horretako adizkiak bere testuetan, beraz, hiru egile gipuzkoarrak ditugu berriro joera beraren adierazle.

3.4. EKARRI (NOR-NORK)

19. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Osagarria sg.	<i>dacart</i> (236-237) <i>dacar</i> <i>dacargu</i> - <i>dacarte</i>	- <i>dacar</i> - <i>dacar(t)zu</i> <i>dacarte</i>
	Osagarria pl.	<i>dacartzit</i> <i>dacartzi</i> <i>dacartzigu</i> <i>dacartzite</i>	- <i>dacartci</i> <i>gacartci</i> <i>dacazte</i>

Aztergai dudan *ekarri* aditzaren forma ezberdinekin osatutako goiko taulan ikus daiteke osagarria singularrean dagoen kasuetan, bi jesuitek adizki berak dituztela.

Azpimarratu beharrekoa iruditzen zait Mendibururen *gacartci* forma, NOR 3. pertsonaz bestelakoa duen bakarra: Larramendik ere Azkoitiko sermoian erabili zuen, eta badu adibide bat Kardaberatzek ere (EKC).

Bestalde, EKC-ren arabera, *dakartzi* gipuzkerazko autoreek (Kardaberatzek, Agirre Asteasukoak, Iztuetak, Orixek, etab.) erabiltzen dute. Larramendiren gramatikan jasotako *dacartzite* aldaera, ordea, XIX. mendeko Iztuetaren lanean bakarrik agertzen da, eta *dakartzi* forma erabiltzen duten gipuzkerazko autoreek pluralean *dakazte* darabilte, Mendiburuk bezala. Hortaz, baliteke *dacartzite* Larramendik sortutako forma erregularra izatea, eta Iztuetak haren eraginez erabili izana. Pluralgileen erabilera dela eta, komenigarria deritzot 14. taulan (25.or.) bildutako *daducatcie* zein *ceducatcien* adibideak gogoraraztea eta pluralgileez diharduen 4. atalera jotzea.

3.5. ERAMAN

20. taula

		Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	Osagarria sg.	<i>naramate</i> (240)	<i>naramate</i>
		<i>darama</i> (238)	<i>darama</i>
		<i>daramazu</i>	<i>daramazu</i>
		<i>daramate</i>	<i>daramate</i>
		<i>garamate</i> (240)	<i>garamazte</i> (1) / <i>garamatci</i> (3)
	Osagarria pl.	<i>daramatzi</i> (239)	<i>daramatci</i>
		<i>daramatzite</i>	<i>daramazte</i>
		<i>daramatzitzu</i>	<i>daramatzitzu</i>

Hogeigarren taula honek erakutsi moduan, gutxi dira bi adituen arteko ezberdintasunak *eraman* aditzaren adizkiei dagokienez. Osagarria singularrean dagoenean biek forma berak baliatzen dituzte eta osagarria pluralean daramaten formetan, aldiz, ezberdintasuna pluralgileen erabilerak adierazten du.

Jada 16. *taulan* zein 19. *taulan* azaldutako *-tzi* pluralgilearen erabilerak markatzen du ezberdintasuna: Larramendik sistematikoki darabil *-tzi* pluralgilea; oiartzuarrak, berriz, ez du hizki hau baliatzen NORK 3.p. plurala denean (ikus *daramazte* eta aurreko taulako *dacazte*). Horregatik, badirudi pluraltasuna adierazten duen hizki hau ez dela Mendibururen euskalkian 3.p. pluraleraino oraindik iritsi.

Bada 20. *taula* honetan adizki berezi bat, Larramendiren *garamate*. Posible da inprenta akats baten ondorio izana (ziurrenik *-z* pluralgilearen falta), baina “gu-haiek” adieradun forma osatzeko, guztiz eragiketa sistematikoa gauzatu dela ere pentsa liteke: *ga-* (NOR 1.p.pl.) + *-rama-* (*eraman* aditzaren ERROA) + *-te* (NORK 3.p.pl.) > *garamate*.

3.6. JOAN

21. *taula*

	Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
Orainaldia	<i>noa</i> (245)	<i>noa</i>
	<i>doa</i> / <i>dijoa</i>	<i>doa</i> (2) / <i>dijoa</i> (6)
	<i>goaz</i>	<i>ba goaz</i>
	<i>zoaz</i>	<i>zoaz</i>
	<i>doaz</i> / <i>dijoaz</i>	<i>doaz</i> (5) / <i>dijoaz</i> (4)
Agintera	<i>goacen</i> (246)	<i>goacen</i>
	<i>zoazte</i> (245)	-
	<i>bioa</i> / <i>bijoa</i> (246)	<i>bijoa</i>
	<i>bioaz</i> / <i>bijoaz</i>	<i>bijoaz</i>

Aztergai dudan *joan* aditzaren kasuan, bi autoreak bat datoz 7 formatatik 6tan. *Dijoa* zein *dijoaz* adizkiei dagokienez, Beterriko euskaran garatutako berrikuntzen artean ditugu (Zuazo 2008: 144). Beraz, ez da harritzekoa Larramendik paradigma orokorrean adizkiok adierazi izana.

Zuazok (2008: 122) dioenez, *nijua* ‘noa’, *dijua* ‘doa’, *dijuazte* ‘doaz’, *nijuan* ‘nindoan’, *zijuan* ‘zihoan’, *zijuazten* ‘zihoazten’ adizkiak Erdialdeko euskara osoan zabaldu dira, baina ez dakigu zehazki XVIII. mendearen erdialdean haien mugak non zeuden. EKC-ren arabera, XVIII. mendera bitarteko egile gipuzkoar gehienek (tartean

Otxoa Arin eta Irazusta) *dijoa / dijoaz* erako adizkiak erabiltzen dituzte. Larramendik zein Kardaberatzek, berriz, *doa / doaz* zein *dijoa / dijoaz* adizkiak erabiltzen dituzte.

Honenbestez, paradigma horretan Larramendik izandako eragina esanguratsua dela adierazi liteke, ia forma guztietan bat etortzeaz gainera, oiartzuarrak ere *doa* nahiz *dijoa* erako adizkiak baliatzen baititu, bere bi adiskideek bezala.

4. Pluralgileak

Gaurko egunera bitartean behar bezala aztertu gabeko alorra da pluralgileei dagokiena, hortaz, nik hurbilketa bat baino ez dut egingo. Adizkien azterketa egiterakoan, bi egileen arteko aldeetan asko pluraltasunari dagozkiola ohartu naiz, eta, honengatik, azalpen orokorrak bila daitezkeela pentsatu dut. Beraz, honako atalean Larramendiren gramatikan (1729) zein Mendibururen obran (1747) ageri diren pluralgileak gertuagotik aztertuko ditut eta bien arteko antzekotasun zein ezberdintasunak azaleratzen saiatuko naiz.

Horretarako, Euskal Gramatika Laburrean (EGLA) aurkeztutako pluraltasuna markatzeko hizkien zerrendan (-z(ki)-, -z-, -tza-, -it-, -e, -te, -de) oinarritu naiz. Bestalde, -zka- , -tzi- eta -te (2.p.pl.) ere txertatu ditut nire zerrendan, testuetatik bildutako datuek hala eskatuta. Baina ez ditut aintzat hartu -z(ki)-, -z eta -de pluralgileak, aztergai ditudan adizkietan ez baitute esangura berezirik.

4.1. NOR pluralgileak

4.1.1. -zka-

Oro har, bi egileek datibodun adizkietan *-zki-* pluralgilea erabili ohi dute, erdialdeko hizkeretan espero denez. Baina NORI 3. pertsona denean *-zka* forma agertzen da, ondo azaldu ez diren arrazoiengatik. Dena den, *-zka-* hiru pertsonadun adizkietan (NOR-NORI-NORK sailekoetan) ageri da eta baita NOR-NORI sailekoetan ere. Honela bada, argi dago *-ka-* hizkia ere datiboarekin lotuta dagoela.

22. taula

Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
<i>zaizca, zaizcate, citzaizcan</i>	<i>zaizca, zaizte, citzaitzan</i>
<i>diozcagu / dizquiogu</i>	<i>dioztagu</i>
<i>diozcate / diezte / dizquiote</i>	<i>diozate / diezte</i>
<i>ciozcaten / ciezten</i>	<i>ciezten</i>
<i>dagozca</i>	<i>dagozca</i>

Goiko taulak argi erakusten du, Larramendiren paradigmatan oiartzuarrak osatutakoetan baino maizago agertzen dela *-zka-* bere adizkietan pluraltasuna adierazteko. Mendiburuk, aldiz, ez du hizki hau hainbeste erabiltzen eta harekin batera darabiltza *-z-* zein *-tza-*.

Testuetan aztertutako gainerako kasuei ere erreparatuz gero, ondorengo atzeman daiteke: batetik, andoaindarrak batez ere *-zka-* hizkidun formak ematen ditu gramatikan; eta bestetik, oiartzuarrak nagusiki *-tza-* hizkia daramaten formak baliatzen ditu, eta baita *-z-* hizki pluralgilea daramatenak ere.

Gisa berean, gogoan izan beharreko kontua da Mendibururen lehenengo argitalpenetik bigarengora egindako *-tza-* > *-zka-* aldaketa. Izan ere, oiartzuarrak ez baitu 1751. urteko argitalpenean lehenengo argitalpenean bezainbeste erabiltzen *-tza-* hizkia, eta haren tokian *-zka-* baliatzen baitu.

EKC-ren arabera, Larramendik darabilen *-zka-* XVIII. mendearen bigarren erditik aurrerako testu gipuzkoarretan agertzen da, eta oiartzuarraren *-tza-*, berriz, lapurterazko testuetan agertzen da nagusiki. Datuok ikusita, kontu dialektala dela adieraz dezaket.

4.1.2. *-tzi-*

Jarraian azalduko dudan *-tzi-* hizki pluralgilearen inguruko azterketarik ez da gauzatu oraindik, baina bi gipuzkoarrek baliatzen dute NOR-NORK saileko jokia daukaten *eduki*, *ekarri*, *eraman* eta *erabili* aditzetan. Larramendik, gainera, *egin* aditzarekin ere erabiltzen du *-tzi* (*egitzitzu*).

23. taula

Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
<i>dauzcate</i>	<i>daduzcate</i> (3) / <i>daducatcie</i> (8)
<i>ceuzcaten</i>	<i>ceducatcien</i> (1)
<i>dacartzi, dacartzigu, dacartzite</i>	<i>dacartci, gacartci, dacazte</i>
<i>garamate</i>	<i>garamazte</i> (1) / <i>garamatci</i> (3)
<i>daramatzi</i>	<i>daramatci</i>
<i>daramatzite, daramatzitzu</i>	<i>daramazte, daramatzitzu</i>
<i>darabiltzi</i> (241)	<i>darabiltcienean</i>

Badira *-tzi* pluralgileari lotutako bi datu interesgarri: batetik, Mendiburuk beti baliatzen du *-tzi*; eta bestetik, Larramendik ere baliatzen du, baina ez erregularitasunez, horren ordeaz *-z* ere erabiltzen baitu (adib. *dauzcate*). Aurrez aipatu moduan (ikus 18. taula), *ekarri* eta *eraman* aditzetan sumatutako irregularitasunak ondokoa pentsarazi dit: pluralgile hau ez dela Mendibururen euskalkian 3.p. pluraleraino oraindik iritsi. Baina *eduki* aditzaren 3.p. pluralean ere *-tzi* du, erregularituta dagoen seinale.

Gipuzkerazko testuetan agertzen dira maizen *-tzi-* hizki pluralgilea daramaten *dakartzi, dakartzite, daramatzi, dadukatzie, zedukatzien* eta *garamatzi* adizkiak (EKC), nahiz eta lapurterazko testuetan ere *daramatzite* bezalako aldaerak agertu. Hortaz, muga dialektalak gainditu eta lapurterarekin lotura baldin badu ere, *-tzi-* erdialdeko ezaugarri gisa uler daiteke.

4.1.3. *-tza-*

Hiru egoera ezberdinetan erabiltzen dute autoreek NOR sailari dagokion *-tza-* pluralgilea: batetik, NOR saileko pluraleko adizkiak osatzeko (adib. *dabiltza*), bestetik, NOR-NORI saileko adizkiak eraikitzeke (adib. *citzaizcan*), eta azkenik, NOR-NORI-NORK saileko hiru pertsonadun adizkiak adierazteke (adib. *diotzat*).

24. taula

Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
<i>citzaizcan</i>	<i>citzaizcan</i>
<i>diozca / dizquio</i>	<i>diotza</i>
<i>diozcagu / dizquiogu</i>	<i>diotzagu</i>
<i>diozcate / diezte / dizquiote</i>	<i>diotzate</i> (3) / <i>diezte</i> (11)

Mendiburuk maiz erabiltzen du *-tza* pluralgilea, baina taulan ikus daitekeenez, andoaindarrak haren lekuan sarritan *-zka-*, *-z(ki)-* zein *-z-* baliatzen ditu. EKC-ren arabera, 24. *taulan* adierazitako *diotza*, *diotzagu* eta *diotzate* adizkiak batik bat lapurterazko testuetan daude lekukotuta. Besteak beste, XVII. mendean Haranburuk darabil, eta XVIII. mendean beste askoren artean Urtek, Haranederrek zein Etxeberri Sarakoak.

Esan beharra dago Larramendik eta Kardaberatzek ez dituztela *diotza* bezalako adizkiak baliatzen, hain zuzen, XIX. mendera bitartean adizkiok erabiltzen dituen gipuzkerazko autore bakarra baita Mendiburu (EKC).

4.1.4. *-it-*

Bi egileek darabilte **edun* eta **ezan* aditz laguntzaileetan orokorra den *-it-* pluralgilea, NOR plurala adierazteko: esate baterako, *ditu*, *ditut*, *lituque*, *guinituque*, *dezaquet* eta *ditzaquet*. Larramendik *lituquee* zein *lituquete* aldaera biak aurkezten ditu bere gramatikan, eta Mendiburuk, berriz, *lituzquee* aldaera. Adizkiok bi ezberdintasun dituzte: *-te* (3.p.pl.) pluralgilearen erabilera eta *-z* pluralgile pleonastikoari dagokiona.

EKC-ren arabera, *lituke* honela dago lekukotuta: egile gipuzkoarren artean, Mendiburuk ditu adizki horren lekukotasun gehien, eta Kardaberatzek ere badarabil; eta lapurterazkoen artean Leizarragak eta Etxeberri Ziburukoak erabiltzen dute.

4.2. NORK pluralgileak

4.2.1. *-te* (3.p.pl.)

Asko dira 3.p. pluraleko *-te* marka daramaten adizkiak, bai andoaindarraren eta bai oiartzuarraren obretan, erdialdean (gipuzkera, goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera) espero daitekeen moduan.

25. *taula*

Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
<i>cinduten</i>	<i>cinduzten</i>
<i>ciozcaten / ciezten</i>	<i>ciezten</i>
<i>naute / naue</i>	<i>naute</i>
<i>dute / deue, dituzte / ditue</i>	<i>dute, dituzte</i>
<i>balute / baleue</i>	<i>balute (2) / balue (2)</i>
<i>luquete / luquee</i>	<i>luquee</i>

<i>didate / didee</i>	<i>didate</i>
<i>dizutete</i>	-
<i>dezaquete</i>	<i>dezaquee</i>

Trask-en legearen (1997) arabera, **-de > -te, -de, -e* gertatu da. Hortaz, *-te* analogikoki hedatu da erdialdean, berez testuinguruari zegozkion formatatik kanpo. Larramendik eta Mendiburuk, euren hizkerari dagokionez, *-te* hedatu horren adibideak dituzte (*naute, dituzte, balute, luquete*, etab.), eta baita *-e* zaharragoaren adibideak (*naue, deue, luquee, dezaquee*, etab.) ere.

Hori dela eta, Larramendiren kasuan, pentsa liteke bi hizkiak erabili izana mintzo bat baino gehiagotako aldaerak biltzearen ondorio dela. Mendibururi dagokionean, ordea, bere paradigmako *balue* adizkia ez beste guztiak agertzen dira Kardaberatzen testuetan (EKC). Ez da harritzekoa, adizki hau Mendibururen zein Mogelen testuetan bakarrik baitago lekukotuta, oiartzuarrak bere kabuz erabili zuen seinale. Horregatik, paradigma horretako Mendibururen hautuen atzean Kardaberatzen eraginak zerikusia izan dezakeela ondoriozta daiteke.

4.2.2. *-te* (2.p.pl.)

26. taula

Larramendi (1729)	Mendiburu (1747)
<i>diozue / diozute, dezue / dezute</i>	<i>diozute, dezue (5) / dezute (1)</i>
<i>zaitzute / zatzute</i>	<i>zaitue / zaituzte</i>
<i>ninduzuten</i>	-
<i>dituzue / dituzute, didazue / didazute</i>	-
<i>diguzue / diguzute, dizugute</i>	-
<i>dezazuten</i>	<i>diezazuten</i>
<i>nazazue / nazazute</i>	<i>nazazue</i>

Goiko taulan ikus daitekeen bezala, bi jesuitek baliatzen dute 2.p. pluraleko *-te* hizki pluralgilea, baina badirudi Mendiburuk baino Larramendik berak gehiagotan jasotzen duela gramatika. Bietan azkenak, bere adizki paradigma oso modu sistematikoan osatzen baitu.

Izan ere, 25. taulan dauden Larramendiren aditz forma guztiek dute gutxienez

-te daraman aldaera bat, eta altura hauetan ezin daiteke kasualitate konturik aipatu. Sistematikotasun horren adibide argiena, beltzez nabarmendutako *dizugute* aldaera berezia da. Ziurrenik, gaur egungo *dizuegu* forma adieraztea zukeen andoaindarrak buruan, baina beste aldaera guztietan *-te* hitz amaieran kokatu zuen legez, kasu honetan ere gauza bera egingo zuen bitan pentsatu gabe.

Horrez gain, argi dago *-zue* forma dela zaharra *-zue(k)* izenordaina du jatorri- eta *-zute* analogiaz hedatu dela Beterriko, Nafarroa Garaiko zein Behereko eta Lapurdiko euskarari dagokien eremuan, 3.p. pluraleko *-te* pluralgilearen eraginez. Alabaina, pentsatzekoa da hedadura analogikoak ez dituela adizki guztiak berdin harrapatu, esaterako, Larramendik *-zue* / *-zute* aldaera biak (adib., *dezue* / *dezute* eta *dituzue* / *dituzute*) jasotzen baititu bere gramatikan.

Honela daude lekukotuta, bada, adizkiok (EKC): *dezue* gipuzkoarren artean, besteak beste, Otxoa Arinek, Larramendik eta Irazustak darabilte; *dezute* batez ere gipuzkerazko testuetan dago, eta tartean dira Larramendi eta Kardaberatzenak; *dituzue*, esaterako, Mendibururen eta Agirre Asteasukoaren testuetan agertzen da; eta *dituzute* adizkiari dagokionean, Larramendiren, Mendibururen zein Kardaberatzen testuetan agertzen da.

5. Ondorio orokorrak

Azterketa honetan frogatu ahal izan dut Mendibururen bigarren argitalpena, adizkiei dagokionez, lehena baino nafar-lapurtarragoa eta erregularragoa dela. Horren erakusle dira lehenengo atalean gertutik aztertutako *zera* > *zara*, *det* > *dut*, *-tza-* > *-zka-* eta *zazkitzu* > *itzazu* aldaketak.

Horrekin batera, aipatzekoa da lan honetan zehar, aditz paradigma batetik bestera datuek erakutsitako aniztasuna. Hau da, kasu batzuetan Mendibururen adizkiak bat datoz Larramendiren paradigma nagusian aurkeztutakoekin (adib. 3. *taulan*), beste batzuetan horretako eta 2. dialektoko adizkiak darabiltza oiartzuarrak (adib. 7. *taulan*), eta badira Larramendiren adizkien zein Mendibururenen arteko inongo loturarik erakusten ez dutenak ere (adib. 16. *taulan*).

Ezberdintasun honen arrazoi nagusiak ondokoak direla ondorioztatu dut: batetik, Larramendik bere gramatikan eremu zabaleko euskara (Donostiatik Tolosara bitartekoa,

batetik, eta lapurtera bestetik) biltzen du eta, beraz, era askotakoak dira emandako adizkiak, eta Mendiburuk “tarteko” euskara darabilenez (ikus 7. *taula*), bere adizkien artean ere eredu bat baino gehiago aurki daitezke; bestetik, andoaindarrak Mendiburuk ez bezalako erregulartasunerako joera nabarmena du, eta kasuren batean susmagarria ere bada (*dizugute* forma da horren lekuko); eta azkenik, badago lapurtarrekiko kidesuna Mendibururen adizki batzuetan (adib. *dezazu, daduca*), zehazki Etxeberri Ziburukoaren eragina sumatu da beragan (Altuna 1982: lxix).

Bestalde, azterketan aurrera egin ahala, gero eta argiago ikusi ahal izan da hizkuntzari dagokionean Larramendiren, Mendibururen eta Kardaberatzen artean dagoen harreman estua. Alegia, sarritan datoz bat hiru egileak, batak bestearen adizki erduei jarraitu dien seinale. Esate baterako, hirurek darabilte *egon* aditzaren *dagoca* forma, eta baita *joan* aditzaren *doa / doaz, dijoa / dijoaz* lau formak ere. Halaber, badira euren artean beste hainbat ezberdintasun. Besteak beste, Mendiburuk *zenu-*, *genu-* erako adizkiak erabiltzen ditu sistematikoki, eta Larramendi zein Kardaberatzek *zendu-*, *gendu-* erakoak; edota oiartzuarrak ekialdeko *dezazu* darabil baina beste biek mendebaldeko *ezazu*.

Amaitzeko, Mendiburu beste autoreengandik ezberdintzen duten ezaugarriak nabarmendu nahi nituzke. Batetik, *egin* laguntzailea [aditzoina + *egin*] perifrasiaren bidez osatzen du, **ezan*-i dagokion ezaugarria beretuta. Bestetik, *-e* plurala erabiltzeko joera du (*nazue, dezue, etab.*), baina erabiltzen ditu tartean *-te* duten *diozute* bezalako formak ere. Azkenik, bere euskararen ezaugarri gisa uler daitezkeen *diezquigu* eta *liezquitzu* erako adizki bereziak erabiltzen ditu.

Guzti honekin, ondokoa adierazi nahi nuke: azterketa honetan bildutako datuek adierazi dutenez, ez dago zalantzarik Mendibururen aditz sisteman Larramendik (eta baita Kardaberatzek ere) izandako eraginaren inguruan. Baina oiartzuarrak bere aldetik dituen ezaugarriok atzeman ostean, zaila gertatzen da harengan besteek izandako eraginaren zenbaterainokoa neurtzea.

Erreferentzia Bibliografikoak

- Altuna, Patxi, 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak (edizio kritikoa)*. Bilbo: Euskaltzaindia – Ediciones Mensajero.
- Altzibar, Xabier, 1992, “Larramendi eta literatur-gipuzkera”, in J. A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*. Donostia: Andoaingo Udala, eta abar, 325-360.
- Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU-UPV), *Euskal Klasikoen Corpora (EKC)*, < <http://www.ehu.es/ehg/kc/> >. [Kontsulta: 2016-01-21].
- Euskaltzaindia, 2002, *Euskal Gramatika Laburra (EGLA): Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gaminde, Iñaki, 1985, *Aditza Ipar Goi Nafarreraz*. Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Gómez, Ricardo, 1991, “Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia”, *ASJU* 25: 3, 783-796.
- Iztueta, Paulo, (arg.), 1991, *Orixe. Idazlan guztiak III: Artikulu eta saiakerak*. Donostia: Etor. *Klasikoen Gordailua, Armiarma*: <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/O/OrixeEdesti.htm>>. [Kontsulta: 2016-01-21].
- Lakarra, Joseba Andoni, 1985, “Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko Sermoia”, *ASJU* 19: 1, 235-281.
- Larramendi, Manuel de, 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaraz. Faks., Donostia: Hordago, 1979.
- _____, 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, San Sebastián: Bartholomé Riesgo y Montero.
- _____, 1754, *Corografía de Guipúzcoa*, J.I. Tellechea Idigorasen arg., Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969.
- Mendiburu, Sebastian, 1747, *Jesusen Bihotzaren Debozioa*. Donostia: Bartholome Riesgo Montero. Berrarg., Iruñea: Pedro Joseph Ezquerro, 1751.
- Mitxelena, Koldo, 1959, “La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)”. *Cuadernos de la Cátedra Feijoo* 6, 10-14. (Berrarg. in Mitxelena 1988: 2).
- _____, 1983, “Mendiburu eta Larramendi”, *Euskera* 28: 1, 19-23.
- Mounole, Céline, 2007, “Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean.

- Azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria”, *ASJU* 41:1, 67-138.
- Oregi, Josu, 1972, “Otxoa-Arinen Doctrina (1713)”, *FLV* 12, 353-369.
- Sarasola, Ibon, 1971, *Euskal Literaturaren Historia. HASTAPENAK-9*. Donostia: Lur, 33.
- Trask, R.L., 1997, *The History os Basque*, Londres: Routledge.
- Urgell, Blanca, 2013, “Lehen Euskara Modernoa (1745-1875)”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza (argitaratzeko).
- _____, 2005, “Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiaranzko hurbilketa bat”, *Lapurdum* 10: 247-286.
- Yrizar, Pedro de, 1981a, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca. Tomo I*. Zarautz: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- _____, 1981b, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca. Tomo II*. Zarautz: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Zuazo, Koldo, 2008, *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.